

# Tonuak eta etenak Bilboko gaztelaniaz eta euskaraz

IÑAKI GAMINDE\*

## 0. SARRERA

Hemen aztertu gura dugun gaiaren gainean, gure aurreko behar batean esaten genuen moduan (Gaminde 2004c), han zabalean lortuko emaitzak datu masa handiagoekin bermatu edo baztertu egin behar ziren. Geroago aldizkari honetan bertan herri bateko datuak aztertu genituen sakon (Gaminde 2004b). Oraingo honetan, gai berberari eta metodologia bertsua erabilita, Bilbon luzaro elkarren ondoan bizi izan diren gaztelania eta euskararen barietate biren azterketak plazaratu nahi ditugu.

Euskararen intonazioaz egin diren behar gehienetan esaldi bakartuak edo testu irakurriak erabili izan dira gehienetan (besteak beste Hualde eta lag. 1994, Uriarte 1995, 2004, Gaminde eta lag. 1997, Gandarias 1996, Elordieta 1997 eta 1999, Hernáez eta lag 1997, Jun eta Elordieta 1997, Elordieta eta lag. 1999, Gaminde 2000 eta 2003, Hualde 1999, Navas 2003). Gutxi dira oraindino testu libreetan oinarritu direnak (Gaminde 2004b eta 2004c, Gaminde eta lag. 2004). Gaztelaniaren kasuan antzera jokatzeko da ezagutzen ditugun kasu gehienetan, lortu nahi diren helburuen araberrako esaldi corpusak jasotzen dira edo testu irakurriak, askotan estilo formalean jasota ere bai (Navarro, 1966, 1980; Quilis 1993, Dorta eta Hernández 2004, Castañer, González eta Simón, 2005, etab.).

Metodologia honen abantailak aitortuta ere (Gaminde 2004c), desabantailak ez dira gutxi, hala nola, bat-bateko berbetan hain arruntak diren bokal luzapenak eta bokal txertaketak ez dira horrelakoetan agertzen; hori dela eta, eurak aztertzeke aukera galtzen da. Bestetik, esperimendu kontrolatuetan erabiltzen diren ereduak nekez gertatzen dira bat-bateko berbetan. Horregatik guztiagatik, guk uste dugu laborategiko esperimenduekin batera testu askeak ere ikertu behar direla. Behar hartan aipatzen genuen interes horri eutsita,

\* (EHU).

oraingoan, jakingurak kinatuta, Bilbon egiten diren gaztelaniaren eta euskararen etenen eta tonuen azterketa, edo azterketarako lehen urratsak egin gura izan ditugu metodo bera erabilia.

Bilboko gaztelanian euskarak eduki duen eragin lexikoaz hainbat behar egin dira Arriagak (1896) bere liburu ospetsua kaleratu zuenetik hona (Zarate, 1976; Irigoien 1977 eta 1993, Gaminde 2004a). Sasoi bateko eragin hori handi samarra izan bazen ere, geroztik galduz doala esan dezakegu; galera horren lekukotza gure familian bertan ikus daiteke. Bestalde, euskararen azentu sistema batzuetan gaztelaniak eragin dituen aldaketez zertxobait idatzi bada ere (Elordieta eta lag. 1998), ez dago garbi zein den erlazioa intonazioan (nahiz Elordietak, 2003, saio txalogarria egin duen). Aitzitik, gaztelaniaren intonazioaren gainean oso deskripzio onak egin dira eta asko, bat aipatzeagatik hemen erabili dugun Sosa-rena (1999). Hala ere, Bilbon oraindino egiten den gaztelaniaren dialektoaz ez dut ezer ezagutzen; behar baten Bilboko informatzaile baten jaulkipenak aztertzen badira ere (Toledo, 2003). Hau izan da honi ekiteko eragin didan arrazoiatariko bat.

Halandaze, gure lanaren helburua Bilboko gaztelaniaren eta euskararen eten motak eta eurokin erlazionatutako tonuak aztertzea da. Lana burutu ahal izateko informatzaile bi baino ez ditugu erabili, horregatik gure helburua apala izan behar da derrigor, hasierako hurbilpentzat hartu behar da gure oraingo hau.

Gaztelaniaren informatzailea Feli Terraza izan da, Bilboko alde zaharrean jaioa 1931. urtean, eta bere aldi osoan Bilbon bizi izan dena eta bizi dena. Gure aurreko beharrean (Gaminde 2004a) Bilboko lexikoa aztertzeko ere informatzailetzat eduki genuen. Behar honetarako corpusa osatzeko testu librean jasoko olgeten gaineko elkarrizketa baten oinarritzen da. Bilboko bertako euskara oraindino lau gunetan jaso daiteke (Gaminde 2004a), Artxandan, Be-goñan, Buja aldean eta Larraskitun. Buja da gure gaztelaniaren informatzailearen auzotik hurbilen dagoen ingurua, horregatik bertako informatzaile baten elkarrizketak erabili ditugu honako corpusa osatzeko. Hemen erabili dugun elkarrizketa 2000. urtean jaso genuen, gure informatzailea Segunda Iturrizar izan zen, Bujakoa eta beti Bilbon bizi izan dena (gaur egun Santutxu auzoan).


Grabazioak, bai euskaraz bai gaztelaniaz, Minidisk izeneko grabagailuaren bidez egin ziren. Ordenagailura irauli eta ostean, PRAAT programa erabilia, corpusaren etiketazioa egin da. Denetara 313 talde prosodiko etiketatu dira gaztelaniaz eta 285 euskaraz, etiketazio horretan transkripzio fonologikoaz gain, etenak eta tonuak ere adierazi dira.

Lana lau zati nagusitan banatuta aurkezten dugu. Lehen zatian gaztelaniaren datuak ematen dira: eten motak, talde prosodikoen luzera, eta etenetan gertatzen diren muga tonuak. Bigarren atalean gauza bera baina euskarari dagokionez. Hirugarren atalean hizkuntza biak alderatzen dira, berdintasunak eta desberdintasunak agirian uzteko. Azkenik, laugarren atalean ondorioak eta hurrengo lanetarako proposamenak egiten dira.

## 1. GAZTELANIAREN EZAUGARRIAK

Gure euskararen gaineko beharretan egin dugun moduan (Gaminde 2004b eta 2004c, bestek beste), datuen azterketarako enuntziatua izango da gure azterketaren oinarria. Enuntziatutzat informatzailea berbetan hasten denetik amaitzen duen bitarteko gutzia hartuko dugu.

Etenei dagokienez, egin dezakegun lehen sailkapena isiluneek osatzen dituzten berbeta zatien arabera da. Ondoko adibidean ikusten den moduan, enuntziatuan isilune bi agertzen dira; bata enuntziatuaren amaieran eta bestea erdian:




1. Irudia: /i el trukeme jugabamos en medjo de la karretera % delante de mi balkon %  
(eta parretilka errepidearen erdian olgatzen genuen % nire balkoiaren aurrean %)

Isiluneen arteko testu zatietan badira isilune bako etenak. Batzuetan azken berbaren bokala (edo kontsonantea “s”ren kasuan behintzat) luzatu egiten da edo bokal bat txertatu egiten da etenaren efektua egiteko. Beste batzuetan berba lagunak etena igartzen du, nahiz eta bokal luzapenik edo txertaketarik egin ez eta isilunerik egon ez; etenaren efektu hau kurban egiten den oinarritzko maiztasunaren aldaketa bortitz baten bidez lortzen da. Goiko testua, isilune bako eta isilunedun etenak markatuta ondoko era honetara eman dezakegu (\$ ikurraren bidez isilunebako etenak adierazten dira eta % ikurraren bidez isilunedunak):

i el trukeme \$ jugabamos en medjo de la karretera % delante de mi balkon %

(eta parretilka \$ errepidearen erdian olgatzen genuen % nire balkoiaren aurrean %)

Ondoko beste testu zati honetan bokalen luzapenak adierazten ditugu isilunedun etenekin batera:




2. Irudia: /i entonzes konakeyas tizas % aziamos V % un trukeme %  
(eta orduan klarion haiekin % egiten genuen % parretilka bat)

Etenak, orduan, irizpide biak erabilia sailka ditzakegu, hots, isilune bai edo ez eta bokal txertaketa edo luzapena bai edo ez. Ondoko taulan eten mota bakoitza adierazteko erabiliko ditugun ikurrak ikus daitezke:

	+Isilune	-Isilune
+Bokal txertaketa	v%	v\$
-Bokal txertaketa	%	\$


Goiko sailkapen horretako mota bakoitzeko irudi bat ikus daiteke ondoko grafikoetan, bertan oinarrizko maiztasunaren kurba eta bokalen luzerak ikusten dira.

(a) “%” etena (+isilunea, -bokal txertaketa edo luzapena)




3. Irudia: tizas % (*klarionak*)

(b) “v%” etena (+isilunea, +bokal txertaketa edo luzapena)




4. Irudia: tipo% (*era*)

(c) “v\$” etena (-isilunea, +bokal txertaketa edo luzapena)



5. Irudia: pwedo V\$ (ahal dut)


(d) “\$” etena (-isilunea, -bokal txertaketa edo luzapena)



5. Irudia: tu kojias desde aki \$ desde aki era lantrada %  
(zuk hartzen zenuen hemendik\$hemendik sarrera zen%)

Corpusean denetara etiketatu diren 313 talde prosodikoak egiteko agertzen izan zaizkigun eten motak ondoko era honetara sailkatzen dira:


	%	v%	\$	v\$
denetara	168	75	35	35
portzentaiak	53,68	23,96	11,18	11,18




6. Irudia: Eten motak

Etenak erabili ditugun irizpide nagusi bien arabera (isilunea bai/ez, bokal luzapena edo txertaketa bai/ez) sailkatuz gero, honako beste hau daukagu:

	<b>+Isilune</b>	<b>-Isilune</b>
<b>denetara</b>	243	70
<b>portzentaiak</b>	77,44	22,36
	<b>+Bokal txertaketa</b>	<b>-Bokal txertaketa</b>
<b>denetara</b>	110	203
<b>portzentaiak</b>	35,14	64,86



Isilunearen arabera etenak




Etenak bokal luzapenaren edo txertaketaren arabera

7. Irudia

Bokal luzeen kasuan, erabakitzeke luzeak diren edo arruntak diren, entzulearen inpresioaz gain neurketak egin ditugu. Bokal luzera arrunta jakiteko 100 bokal neurtu ditugu, bokal mota bakoitzeko 20 hartu dira. Neurketa CV.C ingurunean egin dugu. Ondoko taulan bokal bakoitzaren batezbestekoak (B) eta desbiazioak (D) ikus daitezke:

	<b>i</b>	<b>e</b>	<b>a</b>	<b>o</b>	<b>u</b>
<b>B</b>	69,48	62,95	69,75	60,9	63,61
<b>D</b>	15,01	13,41	10,95	11,08	13,46



8. Irudia: Bokalen luzera arrunta.


Bokal guztien arabera luzeraren batezbestekoa 64,54koa da. Bokal luzeek bariazio handiagoa daukate. Ondoko taulan bokal luze bakoitzeko neurtuko 10 kasuren batezbestekoak erakusten dira:

	i	e	a	o
<b>B</b>	206,38	214,8	191,25	205,29
<b>D</b>	68,57	57,17	45,14	59,22

Enuntziatu barruko talde prosodikoen arteko etenen luzera oso aldakorra da. Berau erakusteko enuntziatu barruan gertatzen diren 54 eten azertu ditugu. Etenik laburrena 3,66 ms.koa da; luzeena, ostera, 162,54 ms.koa.

Talde prosodikoa etenen arteko enuntziatu zatia dugu eta intonazio unitate nagusia izango litzateke, izan ere, beraren barruan gertatzen dira melodia desberdinak. Talde prosodikoen luzera aztertzeko, gure corpusean agertzen diren 313 taldeen silaba kopuruak ikusiko ditugu. Kopuruok 1etik eta 20ra bitartean kokatzen dira. Ondoko taulan eta grafikoan bakoitzaren kopuruak eta portzentajeak ikus daitezke:

Silabak	Kopurua	%	Silabak	Kopurua	%
1	33	10,54	11	9	2,88
2	41	13,10	12	11	3,51
3	28	8,95	13	6	1,92
4	41	13,10	14	3	0,96
5	31	9,90	15	2	0,64
6	26	8,31	16	1	0,32
7	21	6,71	17	2	0,64
8	17	5,43	18	4	1,28
9	19	6,07	19	2	0,64
10	14	4,47	20	2	0,64




9. Irudia: Talde prosodikoen luzera.

Talde prosodiko gehienak nahiko laburrak dira; hona hemen, multzo bitan banatuz gero, agertzen zaizkigun portzentajeak:


Silabak	Kopuruak	%
1-10	271	86,58
11-20	42	13,42

Bestetik azertu ditugun 313 talde prosodiko guztien artean 1849 silaba dauzkagu; batezbesteko orokorra eginez gero beronek 5,9 silaba taldeko suposatzen du.


Etenekin batera agertzen diren tonuen azterketa egin ahal izateko etenen aurreko tonu guztiak etiketatu dira. Etenetan agertzen diren tonuak bost motatakoak dira, behearanzko tonua (B), goranzkoa (G) eta aurreko tonuari eusten diona edo, gurago bada, luzatu egiten duena (E); hauezaz ostera badira tonu bikoitz bi behearanzko-goranzkoa (BG) eta goranzko-behearanzkoa (GB). Ondoko grafikoetan bakoitzeko adibide bat ikus daiteke:



10. Irudia: /pero bueno B% / (*baina beno*)




11. Irudia: /kwerda no \$/ (*soka ezta?*)




12. Irudia: /kería E %/ (*maite ninduen*)






13. Irudia: foka GB% (*foka*)



14. Irudia: porejemplo BG (*esate baterako*)

Etenetan gertatzen diren muga tonu kopuruen batezbestekoak ondoko era honetara banatuta agertzen zaizkigu:

	Kopurua	%
<b>B</b>	107	34,19
<b>G</b>	41	13,10
<b>E</b>	78	24,92
<b>BG</b>	36	11,50
<b>GB</b>	51	16,29




15. Irudia: Etenetako tonuen hedadura

Eten mota bakoitzarekin eta bertan agertzen diren muga tonuekin egin daitezkeen konbinazioak honako hauek dira:

	B	G	E	BG	GB
%	83	28	10	14	33
v%	8	9	40	11	7
\$	11	1	6	7	10
v\$	5	3	22	4	1

Ondoko taulan eta grafikoan goiko taulan eman ditugun tonu moten eta eten moten konbinazio guztien kopuruaren portzentajeak erakusten dira:

	B	G	E	BG	GB
%	26,52	8,95	3,19	4,47	10,54
v%	2,56	2,88	12,78	3,51	2,24
\$	3,51	0,32	1,92	2,24	3,19
v\$	1,60	0,96	7,03	1,28	0,32




16. Irudia: Etenen eta tonuen konbinazioen hedadura.

Beherazko eta goranzko tonuak, eta euron konbinazioz sortzen diren tonu bikoitzak gehienetan bokal luzapen edo txertaketarik gabe gertatzen dira, % 80,4ean. Eusteko tonuak (E) bokal luzapen edo txertaketekin batera gertatzen dira gehienetan, % 78,48 hain zuzen ere.

## 2. EUSKARAREN EZAUGARRIAK

Bujako euskararen denetara 285 talde prosodiko aztertu ditugu. Etenak, gaztelaniaz egin dugun sailkapenaren arabera, ondoko era honetara multzokatzeko dira:

	%	v%	\$	v\$
<b>denetara</b>	128	50	52	55
<b>portzentajeak</b>	44,91	17,54	18,25	19,3




17. Irudia: Eten motak

Bizkaiko 20 herritan lortu genituen emaitzekin erkatuta (Gaminde 2004c), desberdintasun batzuk agertzen zaizkigu:


	%	v%	\$	v\$
<b>denetara</b>	44,91	17,54	18,25	19,3
<b>portzentajeak</b>	49,7	16,15	21,5	12,65

Etenak sailkatzeko erabili ditugun irizpidea bien arabera sailkatzen badi-tugu, honako beste hau osa dezakegu:

	<b>+Isilune</b>	<b>-Isilune</b>
<b>denetara</b>	178	107
<b>portzentajeak</b>	62,45	37,55
	<b>+Bokal txertaketa</b>	<b>-Bokal txertaketa</b>
<b>denetara</b>	105	180
<b>portzentajeak</b>	36,85	63,15



Isilunearen arabera etenak




Etenak bokal luzapenaren edo txertaketaren arabera

18. Irudia

Enuntziatu barruko talde prosodikoen arteko etenen luzera, gaztelaniaz legez, oso aldakorra da. 80 etenen luzera aztertuta, etenik laburrena 3,02 ms.koa da; luzeena, ostera, 253,65 ms.koa.

Talde prosodikoen luzerari dagokionez, eurok silaba batekoak eta 24 silabakoen artean kokatzen dira:

Silabak	Kopurua	%	Silabak	Kopurua	%
1	13	4,56	12	11	3,86
2	39	13,68	13	8	2,81
3	31	10,88	14	3	1,05
4	29	10,18	15	3	1,05
5	30	10,53	16	2	0,70
6	21	7,37	17	1	0,35
7	25	8,77	18	1	0,35
8	17	5,96	20	1	0,35
9	18	6,32	23	1	0,35
10	23	8,07	24	1	0,35
11	7	2,46			



19. Irudia: Talde prosodikoen luzera.

24 silabako talde bat agertu arren, talde prosodiko gehienak nahiko laburrak dira; hona hemen multzo bitan banatuz gero agertzen zaizkigun portzentajeak<sup>1</sup>:


Silabak	Kopuruak	%
1-10	246	86,32
11-24	39	13,68

<sup>1</sup> Bizkaiko 20 herritan egineko azterketan silaba bateko eta hamarreko talde prosodikoen portzentajeak 81 eta 97 bitartean kokatzen ziren.

Bestetik azertu ditugun talde prosodiko guztien artean 1813 silaba dauzkagu; batezbesteko orokorra eginez gero beronek 6,36 silaba taldeko suposatzen du.

Etenekin batera agertzen diren tonuak aztertuko ditugu jarraian. Etenetan agertzen diren tonuak bost motatakoak dira, beheranzko tonua (B), goranzkoa (G), ertaina (E), beheranzko-goranzkoa (BG) eta goranzko-beheranzkoa (GB). Tonuak ondoko era honetara banatuta agertzen zaizkigu:

	Kopurua	%
<b>B</b>	73	25,61
<b>G</b>	55	19,29
<b>E</b>	90	31,57
<b>BG</b>	33	11,57
<b>GB</b>	34	11,92




20. Irudia: Etenetako tonuen hedadura

Eten mota bakoitzarekin eta bertan agertzen diren muga tonuekin egin daitezkeen konbinazioak honako hauek dira:

	<b>B</b>	<b>G</b>	<b>E</b>	<b>BG</b>	<b>GB</b>
<b>%</b>	52	36	7	18	15
<b>v%</b>	1	11	28	8	2
<b>\$</b>	17	8	12	6	9
<b>v\$</b>	3	0	43	1	8

Ondoko taulan eta grafikoan goiko taulan eman ditugun tonu moten eta eten moten konbinazio guztien kopuruen portzentajeak erakusten dira:

	<b>B</b>	<b>G</b>	<b>E</b>	<b>BG</b>	<b>GB</b>
<b>%</b>	18,25	12,63	2,46	6,32	5,26
<b>v%</b>	0,35	3,86	9,82	2,81	0,70
<b>\$</b>	5,96	2,81	4,21	2,11	3,16
<b>v\$</b>	1,05	0	15,09	0,35	2,81



21. Irudia: Etenen eta tonuen konbinazioen hedadura.

Beherazko eta goranzko tonuak, eta euron konbinazioz sortzen diren tonu bikoitzak gehienetan bokal luzapen edo txertaketarik gabe gertatzen dira, % 81,52an. Eusteko tonuak (E) bokal luzapen edo txertaketekin batera gertatzen dira gehienetan, % 78,88 hain zuzen ere<sup>2</sup>.

### 3. GAZTELANIAREN ETA EUSKARAREN ARTEKO ALDEAK


Arteragoko azpi atal bietan hizkuntz bakoitzeko aurkeztu ditugun emaitzak erkatuko ditugu azpi atal honetan. Erkaketa orain arte erabili dugun orden berean egingo dugu. Isiluneen banaketa, talde prosodikoen luzera eta tonuen hedadura etenen arabera.

Isilunedun eta isilune bako etenen banaketan gertatzen zaigu lehen desberdintasun esanguratsua. Gaztelaniaz isilunedun etenak % 77,44 diren artean, euskaraz % 62,45 dira. Bokal txertaketak, ostera, berdintsu erabili dira bietan; gaztelaniaz %35,14ean eta euskaraz %36,85ean. Ondoko tauletan mota bakoitzaren eta konbinazioen hedadurak ikus daitezke:

	<b>+Isilune</b>	<b>-Isilune</b>
<b>gaztelaniaz</b>	77,44	22,36
<b>euskaraz</b>	62,45	37,55
	<b>+Bokal txertaketa</b>	<b>-Bokal txertaketa</b>
<b>gaztelaniaz</b>	35,14	64,86
<b>euskaraz</b>	36,85	63,15

<sup>2</sup> Bizkai osoko herrien portzentajea 78,48koa izan zen.


	%	v%	\$	v\$
<b>gaztelaniaz</b>	53,68	23,96	11,18	11,18
<b>euskaraz</b>	44,91	17,54	18,25	19,3



22. Irudia: Eten motak


Talde prosodikoen luzerari dagokionez, gaztelaniaz silaba bat eta 20 bitartean kokatuta agertu zaizkigu eta euskaraz bat eta 24 bitartean. Hala ere, euren hedaturari erreparatuta emaitzak berdintsuak dira, hots, 1-10 bitartean dauden talde prosodikoak gaztelaniaz % 86,58 dira eta euskaraz % 86,32. Ondoko taulan eta grafikoan bien portzentajeen banaketak ikus daitezke:

Silabak	Kopurua	%	Silabak	Kopurua	%
1	10,54	4,56	12	3,51	3,86
2	13,10	13,68	13	1,92	2,81
3	8,95	10,88	14	0,96	1,05
4	13,10	10,18	15	0,64	1,05
5	9,90	10,53	16	0,32	0,70
6	8,31	7,37	17	0,64	0,35
7	6,71	8,77	18	1,28	0,35
8	5,43	5,96	19	0,64	0
9	6,07	6,32	20	0,64	0,35
10	4,47	8,07	23	0	0,35



23. Irudia: Talde prosodikoekoen luzera

Ondoko beste grafiko honetan ikusten den moduan, beheengo talde prosodikoekoen banaketan desberdintasun txiki batzuk agertzen dira, izan ere, euskaraz 7-12 bitarteko talde prosodikoak gehiago agertu dira gaztelaniaz baino.




24. Irudia: Talde prosodikoekoen luzera lau multzotan banatuta.

Etenekin gertatzen diren muga tonuak berdinak dira hizkuntz bietan (B, G, E, BG eta GB). Badakigu euskararen barietate batzuetan hau ez datorrena bat, esate baterako Gatikan (Gaminde 2004) hiru muga tonu baino ez dira agertzen (B, G eta E).

Tonuen banaketari dagokionez, desberdintasun batzuk gertatzen dira, izan ere, tonu batzuk eten mota batzuekin gehiagotan erabiltzen dira beste batzuekin baino. Hortaz, eten motetan desberdintasunak egotean, normala da tonuen banaketan desberdintasun horiek islatzea. Ondoko taulan ikusten den moduan desberdintasunik handienak B eta E tonuen banaketan gertatzen dira:



	B	G	E	BG	GB
gaztelaniaz	34,19	13,10	24,92	11,50	16,29
euskaraz	25,61	19,29	31,57	11,57	11,29



25. Irudia: Muga tonuen banaketa.

Desberdintasunak desberdintasun, interesgarria da ikustea bietan B, G, BG eta GB gertatzen direla bokal txertaketarik edo luzapenik gabe; gaztelaniaz %80,4ean eta euskaraz %81,52an. Aitzitik, E tonua bokala txertatzen denean edo luzatzen denean gertatzen da gehienetan gaztelaniaz %78,48an eta euskaraz %78,88an.

#### 4. ONDORIOAK ETA HURRENGO LANAK

Lan honetako ondorioak laburbilduz esan dezakegu lehenengo eta behin Bilboko gaztelaniaren eta euskararen etenak eta muga tonuak aztertuta, ez dagoela oso desberdintasun handirik euron banaketei dagokienez.

Etenen esparruan esan dezakegu ezen, eurok sailkatzeko orain arte eman ditugun irizpideak (Gaminde, 2004c) baliagarriak direla gaztelaniaren sailkapena egiteko ere. Irizpide horiek bi dira nagusiki:

- (a) Isilunea bai/ez
- (b) Bokal luzapena edo txertaketa bai/ez

Etenen bidez osatzen diren talde prosodikoen % 86,58 gaztelaniaz eta %86,32 euskaraz silaba bat eta hamarren artean agertzen dira. Badirudi berau ez dela kasualitatez gertatzen, izan ere, euskararen kasuan Gatikan lortu genituen emaitzetan (Gaminde, 2004c) % 86,82 kokatzen zen tarte honetan.

Etenekin batera agertzen diren tonuak (goranzkoak G, beheranzkoak B, eustekoak edo ertainak E, goranzko-beheranzkoak GB eta beheranzko-goranzkoak BG) batzuk dira gaztelaniaz zein euskaraz. Tonu bikoitzak tonu bakun biren konbinaziotzat azter daitezkeen arren, hemen gurago izan dugu azterketa hau egin (Hualdek, 2003, egiten duen iradokizunaren arabera), euskararen barietate batzuetan (Bakio, Gaminde eta lag. 2004, Gatika, Ga-

minde 2004b) etenetako mugetan ez dagoelako honelakorik eta hau bada desberdintasun nabarmen bat. Edozelan ere, muga tonuak eten mota zehatz batzuekin sarriago gertatzen dira beste batzuekin baino. Nabarmenena da hizkuntza bietan tonu ertaina eta bokal txertaketaren artean dagoen proportzioa berdina izatea (gaztelaniaz % 78,48 eta euskaraz 78,88). Era berean B tonua % eta \$ eten motekin batera agertzen da batez ere. G tonua % eten motarekin, bai bokal luzapenarekin batera bai hain barik.

Etenetan gertatzen diren tonuen funtzioen artean nagusi bi aipa ditzakegu. Beheranzko tonua egiten denean, berori talde prosodiko edo enuntziatuaren amaierarekin lotzen da. Elkarrizketen kasuan, mintzakideak beheranzko tonua txanda aldaketarekin lotu dezake. Goranzko tonuek enuntziatu ez dela amaitu adierazten dute, hau da, mintzatzen dabilenak segitu behar duela (adierazpide honen modurik arruntena zerrendetan gertatzen dena dugu). Eusteko tonua entzuten denean, berba laguna pentsatzeko denbora hartzen dabilela interpretatzen da. Aztertzeke geratzen dira tonu bikoitzen funtzioak; esan dezagun, aurrerapen gisa, tonu bikoitzak enfasiarekin lotuta agertu zaizkigula hainbat kasutan.

Aurrerantzean egiteko interesgarri deritzegun lanen artean batzuk aipatuko ditugu. Batetik, gaztelaniaren kasuan, hemengo emaitzak beste barietate batzuekin parekatu beharko lirakeke erreferentzia argiak edukitzeko eta jakiteko zein den erlazioa euskararekin. Bestetik, estiloak eta testu motek etenetan eta euron muga tonuetan daukaten erlazioa ikertzea interesgarria izango litzateke. Azterketa hauek eginda, neurri batean behintzat, argi genitzake zeintzuk diren hizkuntzen arteko erlazioak, zer dagoen orokorra, zer pertsonala eta zer estilistikoa edo pragmatikoa. Azkenik, biziki interesgarri deritzot, etenen eta muga tonuen erlazio matematikoa aztertzeari.

## AIPAMENAK

- ARRIAGA, Emiliano, 1960, *Lexicón bilbaino*, 2. argitalpena Madril, Lehenengo edizioa 1896, urtean egina.
- CASTAÑER, Rosa María, GONZÁLEZ, María Pilar eta SIMÓN, Javier, 2005, "Aproximación al estudio de la entonación aragonesa", *EFE*, XIV, 273-293.
- DORTA, Josefa eta HENÁNDEZ, Beatriz, 2004, "Porsodia de las oraciones SVO declarativas e interrogativas en el español de Tenerife", *EFE*, XIII, 225-273.
- ELORDIETA, Gorka, 1997, "Accent, tone and intonation in Lekeitio Basque", in *Issues in the Phonology and Morphology of the Major Iberian Languages*, Fernando Martínez-Gil and Alfonso Morales-Front (eds), 3-78 Washington, D. C.: Georgetown University Press.
- ELORDIETA, Gorka, 1999, "Primer estudio comparativo de la entonación de tres variedades dialectales vascas", agertzeko in *1 Congreso de Fonética Experimental*-eko agirietan, Barzelonako Unibertsitateko argitalpen zerbitzua.
- ELORDIETA, Gorka, 2003, "The Spanish intonation of speakers of a Basque pitch-accent dialect", *Catalan Journal of Linguistics* 2, 67-95.
- ELORDIETA, G.; GAMINDE, I. eta HUALDE, J. I., 1998, "Euskal azentua gaur eta bihar", *Euskera*, 43: 399-424.
- GAMINDE, Iñaki, 2000, "Azentu eta Intonazioa: egoera eta ikerketa baliabideak", in Zuazo, Koldo (arg.), *Dialektologia Gaiak*, Arabako Foru Aldundia.
- GAMINDE, Iñaki, 2003, "Intonazio ereduak Zeanurin", *FLV*, 93.
- GAMINDE, Iñaki, 2004a, *Bilbotarron Euskararen Zuzuan CDA*, Asapala Kultur Elkartea, Bilbo.
- GAMINDE, Iñaki, 2004b, "Tonuak eta etenak Gatikako intonazioan", *FLV*, 97, 519-536. or.

- GAMINDE, Iñaki, 2004c, “Intonazio Kurben Etenez” (agertzeko), in *L. Trasken omenezko liburuan*.
- GAMINDE, I.; HERNÁEZ, I.; ETXEBARRIA, B. eta ETXEBERRIA, P., 1997, “An Analysis of the Intonation for a Pitch Accent Variety of the Basque Language”, in Botinis, A.; Kouroupetroglou, G. eta Carayiannis, G.(eds.), *Intonation: Theory, Models and Applications*. Proceedings of an ESCA Workshop, Athens, Grezia, 137-140.
- GAMINDE, I.; GOIKOETXEA, J. L.; OLALDE, A.; ELGOIBAR, E.; BILBAO, B. eta MARKAIDA, I., 2004, “Bakioko euskararen soinu egitura”, *Euskalingua*-5.
- GANDARIAS, Rosa, 1996, *Ispasterko Intonazioaren Deskribapena: Azterketa Fonetikoa*, Doktorego Tesia, EHU.
- HUALDE, José Ignacio, 1993, “On the historical origen of Basque accentuation”, *Diachronica*, 10, 13-50.
- HUALDE, José Ignacio, 1999, “From phrase-final to post-initial accent in western Basque”, (esku-izkribua).
- HUALDE, José Ignacio, 2003, “El modelo métrico y autosegmental”, in Prieto, Pilar (coord.), *Teorías de la Entonación*, Ariel, Bartzelona.
- HUALDE, J. I. ELORDIETA, G. eta ELORDIETA, A., 1994, *The Basque Dialect of Lekeitio*. Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco y Diputación Foral de Gipuzkoa, Bilbo eta Donostia.
- IRIGOIEN, Alfonso, 1977, “Bilbo eta euskara”, *Euskera*, XXII, 38-425 orr.
- IRIGOIEN, Alfonso, 1993, “Bilbao jatorriz hiri euskalduna izan da”, in *I. Jardunaldiak Soziolinguistikaz*, Bilboko Udalak. Bilbo
- NAVARRO, Tomás, 1966, *Estudios de Fonología Española*, Las Américas Publishing Company, New York.
- NAVARRO, Tomás, 1980, *Manual de pronunciación española*, Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Madrid.
- NAVAS, Eva, 2003, *Modelado Prosódico del Euskera Batúa para Conversión de Texto a Habla*. Doktorego tesia (argitarabakoa).
- QUILIS, Antonio, 1993, *Tratado de fonología y fonética españolas*, Gredos, Madrid.
- SOSA, Juan Manuel, 1999, *La Entonación en Español*, Cátedra, Madrid.
- TOLEDO, Guillermo, 2003, “Modelo autosegmental y entonación: Los corpus Dies-Rtvp”, *EFE*, XII, 143-163.
- URIARTE, Jon Andoni, 1995, *Fruizko Hizkera: Azterketa Linguistikoa*. Doktorego tesia, Deustuko Unibertsitatean.
- URIARTE, Jon Andoni, 2004, *Fruiztarrak Berbetan*, Fruizko Udala, Bilbo.
- ZARATE, Mikel, 1976, *Influencias del vascuence en la lengua castellana a través de un estudio del elemento vasco en el habla coloquial del Chorierrri*, Gran Bilbo. Bilbo.

## LABURPENA

*Tonuak eta etenak Bilboko gaztelaniaz eta euskaraz*

Artikulu honetan Bilboko gaztelaniaren eta euskararen intonazioaren antolamendua ulertzeko etenen eta tonuen azterketa egiten da. Horretarako grabatutako testu libreen bidez osaturiko 313 talde prosodikoko corpusa prestatu da gaztelaniarako eta 285 taldekoa euskararako. Lanaren hasieran etenen sailkapenerako irizpideak eman ondoren, mota bakoitzaren hedadura aztertzen da. Etenekin batera talde prosodikoen amaieran erabiltzen diren tonu motak ere ikertzen dira. Azkenik hizkuntz bakoitzeko aurkitu diren berdintasunak eta desberdintasunak erkatzen dira.

## RESUMEN

*Tonos y pausas en el castellano y euskera de Bilbao*

En este artículo se analizan las pausas y los tonos que configuran la entonación del español y del euskera de Bilbao. Para ello hemos formado un corpus compuesto de 313 grupos prosódicos en español y 285 en euskera a partir de textos libres grabados. Al comienzo del trabajo después de analizar los criterios para la clasificación de las pausas se da cuenta del número de concurrencias de cada tipo. Junto con las pausas se investigan los tipos de tonos de frontera que aparecen al final de las mismas. Por último se cotejan las similitudes y diferencias que se han encontrado en cada una de las lenguas.

## RÉSUMÉ

*Tons et pauses dans l'espagnol et le basque de Bilbao*

Dans cet article on analyse les pauses et les tons qui configurent l'intonation de l'espagnol et du basque de Bilbao. Nous avons pour cela, formé un corpus composé de groupes prosodiques en espagnol et 285 en basque à partir des textes libres enregistrés. Au début du travail, après avoir analysé les critères pour le classement des pauses, on prend note du nombre de coïncidences de chacune d'entre elles. En même temps que les pauses, on analyse aussi les types de tons de frontière qui apparaissent à la fin de celles-ci. En dernier lieu, on compare les ressemblances et les différences trouvées dans chaque langue.

## ABSTRACT

*Tones and pauses in the Castilian and Basque spoken in Bilbao*

This article studies the pauses and tones which comprise the intonation of the Spanish and Basque spoken in Bilbao. In order to do this, a body consisting of 313 prosodic groups in Spanish and 285 in Basque has been formed from free, recorded texts. After analysing criteria for the classification of the pauses, work begins with an account of the degree of concurrence of each type. Alongside the pauses, the types of frontier tones appearing at the end of these are investigated. Finally, the similarities and differences found in each of the languages are compared.